

Topalekua

58zk. 2010ko uztaila

julio 2010 - n.º 58

pág. 1: *Gizarte kontseiluak ahalegin guztia egingo du EHU-ko proiektu estrategikoan eta unibertsitatearen presentzia soziala indartzen*

pág. 2: *Gizartearekiko komunikazioa hobetzeko proiektu bat*

pág. 3 y 4: *Gizarte Kontseiluak Hezkuntza Sailari ehun 68 Gradu-titulu ezartzea proposatzen dio*

pág. 4: *Kontseiluaren Presidentea legebiltzarraren aurrean agertu da, Plan Estrategikoaren gauzatze-mailaren kontu emateko*

Gizarte Kontseiluaren 2011-2014 laurteko Plan Estrategikoa onartu da

GIZARTE KONTSEILUAK AHALEGIN GUZTIA EGINGO DU EHU-KO PROIEKTU ESTRATEGIKOAN ETA UNIBERTSITATEAREN PRESENTZIA SOZIALA INDARTZEN

EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, pasa den ekainaren 16an, 2011-2014 laurtekorako Plan Estrategikoa onartu du. Horretan, honako helburu hauek ezarri dira: EHUren proiektu estrategikoak laguntzea eta bultzatzea, Unibertsitateak gizartean duen presentzia eta interakzioa indartzea eta Kontseiluaren partaidetza hobetzea unibertsitate-gobernuan.

Hiru ardatz estrategiko horiek erabat bete daitezten lortzeko, Planak hogei ekintza inguru garatzea aurreikusten du, gutxika ezarriko direnak, urteko jarduera-planak adosten diren heinean. Horien artean proposamen hauek nabarmentzen dira, besteak beste: e-unibertsitatea bultzatzea titulu ez-presentzialen eskaintzarako; Unibertsitateko Balioen EHU Foroa abian jartzea, iritzia, kultura eta eztabaida sortzen laguntzeko; Lanbiderekiko lankidetzan unibertsitatetik laneratzeko zerbitzu bat abian jartzeko aukera aztertzea; edota Unibertsitateko ikasle ohien zerrenda bat garatzeko ekimenak abian jartzea.



3. GIZARTE KONTSEILUAREN MISIOA

2007-2010 Planean, Gizarte Kontseiluaren Misioa (arrazoia, identitate-deklarazioa, helburua) honela definitzen da:

Kontseiluaren eta Unibertsitatearen arteko lotura:

- Gobernu-taldeak proposatutako Unibertsitatearen jardura eta planak gauzatzen laguntzea eta horren eskura jartzea
- Unibertsitatearen misioa gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide eta influentzia.
- Enpresen eta, oro har, gizartearen aldetik Unibertsitatearen finantzaketan parte hartzea eta eragitea.

Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko lotura:

- Lotura gisa jardutea Unibertsitatearen eta gizartearen artean, Unibertsitateari Gizartearen kezka eta beharrak nabarmenduz (transmitituz) eta Gizartera Unibertsitatearen gaitasun, kezka eta beharrak eramanaz.

Kontseiluaren eta Gizartearen arteko harremana:

- Kontaktu mantentzea Autonomia Erkidegoko erakunde ekonomiko, profesional, kultural (eta) gobernuzkoekin, orobat Estatu eta nazioarteko erakundeekin, Kontseiluaren Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko lotura-funtzioa errazten duen informazioa biltzeko eta transmititzeko.

Bestalde, honako balio hauek **nabarmentzen** dira:

- Ulermena eta baterako lana, Unibertsitatearen ongizaterako.
- Unibertsitatearen kudeaketa errazteko jarrera positiboa.
- Elkarrenganako konfiantza Kontseiluaren eta Unibertsitatearen gobernu-taldearen artean.
- Unibertsitateko Errektorearentzako babesa eta laguntza.
- Unibertsitatearen autonomia errespetatzen duen elkarrenganako leialtasun-suposizioa.

(Gizarte Kontseiluaren 2010eko urtarileko "2007-2010 Plan Estrategikoaren eboluzioa, gauzatzeak eta aurreikuspenak" dokumentuaren idazpenaren arabera, zeinak 2006ko abenduaren 18an Plana aurkeztu zuen dokumentuan barne hartzen den definizioa doltzen baitu)

GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA HOBETZEKO PROIEKTU BAT

Saio berean, Osoko Bilkurak “EHUren jarduera gizarteari jakinarazteko beharrezko informazioaren egitura eta edukia” txostenaren ondorioak analizatu ditu. Azterketa hori Kontseiluak egin du, Unibertsitateari loturiko interes-taldearen informazio-beharak estaltzeko, gai horren inguruan Kontseiluaren beraren Plan Estrategikoan ezarritako helburuekin bat, hots, honako hauekin bat:

- Sortutako ezagutzari loturiko emaitzen (ikerketari transferentzia-prozesua sortzea.
- Unibertsitatearen gizarte betekizuna eta hark euskal gizartearen garapen sozioekonomikoan egiten duen ekarpena zein den jakinaraztea.
- Unibertsitateari gizarteari kontuak ematen laguntzea.
- EHUren aintzatespen soziala hobetzea, gertuko eta erreferentziazko irudia proiektatuz, ezagutzaren eragile gisa.

Azterketan egungo egoeraren analisi bat dago, orobat Estatuko eta nazioarteko antzeko jardueren berrikuspen bat, eduki informatiboaren eta horiek zuzendu behar diren eragileen identifikazioa eta Unibertsitatearen komunikazio-mekanismoen azterketa bat. Azkenik, komunikaziorako egitura eta eduki komunaren proposamen bat agertzen da, baita tresna eskuragarriak eta horiek guztiak hobetzeko proposamenak ere. Azkenik, eduki gehien kasuan, azterketan hobekuntza-proposamenak egiten dira Unibertsitatearen web atariari loturik eta bost jarduera-ildo handiren inguruan egituratuta: tresna berriak garatzea euskarri fisikoan, edukiak gehiago ezagutaraztea, web gunearen edukiak hobetzea, euskarri fisikoaren duten tresnak hobetzea eta web tresna berri bat sortzea. Ildo horietarako, lanak ildoei loturiko zenbait jardura proposatzen ditu, 75 ekintzako multzoa osatu arte.

Biodonostian parte hartzea

Bestalde, Kontseiluak onartu egin du Unibertsitateak Biodonostia Osasun Ikerketarako Institutu Elkartearen parte har dezan ere. Elkarrekin horren helburua proiektuak garatzea, laguntza tekniko eskaintzea, giza baliabideak prestatzea eta lankidetzaren tekniko jarduerak garatzea da osasun-zientzien esparruan eta, batez ere, biomedikuntzaren esparruan. Halaber, Kontseiluak onartu egin du Arabako Foru Aldundiak Heziketa Fisikoko Euskal Institutua eta Institutuak hartzen dituen lurak Unibertsitateari dohainik lagatzea.

Osoko Bilkurak Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren Segimendu Batzordearen txostena ere aztertu du, non 2009 ekitaldiaren itxurari buruzko datuak aztertzen baitira eta zifrak ekitaldiko gastu-aurreikuspenaren arabera doitzen baitira. Hartara, 2010 urteko 10,15 milioi euro 2011 urtera pasatzen dira, zifrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak planteatutako engaiaimendu-kredituen urteko zenbateko berrietara egokitze aldera.

Azkenik, Errektoreak Gizarte Kontseiluari Euskampus proiektua ezagutarazi dio. Proiektu hori EHUren, administrazio publikoaren eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakunde nagusien arteko aliantza bat da, ikasleei prestakuntza osoa eskaintzeko, garapen zientifiko eta teknologikoaren motor gisa jarduteko eta erakunde solidario, engaiaitu eta sozialki arduratsua dela baloratzeko. Helburua unibertsitate osoaren eta kanpo-eragile guztien partaidetza eta inplikazioa duen proiektu estrategikoa egituratzea da, unibertsitate-eskaintza nabarmen bereizgarria eskaini ahal izateko, non bikaintasun-esparruak identifikatzen baitira eta non ikasleen eta irakasleen interesa erakartzen baita, bikaintasunean oinarritutako eta gizarte-eta ingurumen-balorez hornitutako proiektuan. Eta, hori guztia, Nazioarteko Bikaintasun Campusaren deialdian Euskal Herriko Unibertsitatearen hautagaitza aurkeztu ahal izateko egin da.

EHUKO KOMUNIKAZIOAREN BARNE-IKUSPEGIA

Web ataria (www.ehu.es), gaur egun, Unibertsitateak duen proiektzio- eta potentzialitate-handieneko komunikazio-tresna da. Web atariaren analisi sakonari esker, batetik, beste komunikazio-tresna batzuk identifikatu ahal izan dira, baliabide fisikoetan (katalogoak, memoriak, argitalpenak) eta presentzialetan (jardunaldiak, azokak, mintegiak) eskura daitezkeenak. Bestetik, EHUren interes-taldeenganako egungo informazio-sistemaren ezaugarri nagusiak aditzera eman ahal izan dira.

EHU-REN EGUNGO KOMUNIKAZIO-EREDUA

- **KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIKOA**, izaera orokorrekoa:
 - Interes-taldek, interesgarria ez izateagatik, deuseztatzen duten informazioa jasotzen dute.
 - Jarrera proaktiboa behar da haien aldetik, bilaketa espezifikoak egiteko.
 - Enpresa, administrazio eta berrikuntza-sistemako eragileekiko harremanak jardueraren emaitzen komunikazioan oinarritzen da, betiere, legezko eta kontratuzko betebeharrak betez.
- **INFORMAZIOAREN ESKURAGARRITASUNA**. Informazioa eskuragarri dago, baina oso zaila da lortzea.
- **HETEROGENEOTASUNA**. Informazio-dukien egitura heterogeneoa da, kudeatzen duen Campus / Zerbitzuaren arabera.
- **PARTAIDE SENTITZEAREN KUDEAKETA**. Ikasleek Unibertsitatearekiko duten lotura lausotu egiten da ikasketak bukatzen dituztenean.
- **NORABIDE BAKARRA**. Komunikazioaren oinarria informazioa eskuragarri / kontsultagarri jartzea da, eragileen aldetik jarrera proaktiboa behar izateko moduan.
- **INFORMAZIOAREN ESKURAGARRITASUNA**. EHU informazio aski eta osoa sortzen da, baina ez da modu egituratuan aurkeztu.

EHU-REN KOMUNIKAZIO-EREDU DESIRAGARRIA

- **INTERES-TALDEEN AURREKO POSIZIONAMENDUA**. Interes-taldek ezagutzea eta horietako bakoitzari transmititu nahi dizkion mezuak modu eraginkorrean helaraztea.
- **INFORMAZIO ESKURAGARRIA**. Informazioa eskuragarri jarri behar da, etengabe eguneratuta eta behar bezala egituratuta.
- **IDENTITATE BAKARRA**. Informazioaren kudeaketa deszentralizatua, EHUren egitura komuna mantenduz.
- **UNIBERTSITATEAREKIKO LOTURA ETENGABE KUDEATZEA**. Informazioa kudeatzea, gainerako Eragileekiko harremanak dinamizatzeko tresna izaki.
- **UNIBERTSITATE IREKIA-PARTAIDETZARAKO ESPAZIOA**. Interes-taldeen lankidetzaren inguruneak ezartzea, web gunean Unibertsitatearen eta interes-taldearen arteko etengabeko interakzioa ahalbidetzen duten transakzio-espazioak gaituz.

Ildo horretan, edukiak egituratzeko proposamenak EHUren jardura interes-taldeei komunikatzeko jardura hobetzen da eta horretarako garatu behar diren ekintza posibleak zehazten dira.

GIZARTE KONTSEILUAK HEZKUNTZA SAILARI EHUN 68 GRADU-TITULU EZARTZEA PROPOSATZEN DIO

Ekainaren 22an Bilbon egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran, EHUren Gizarte Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Euskal Herriko Unibertsitatean 68 gradu-titulazio berri ezar daitezen proposatzea erabaki zuen.

Kontseiluak onartutako 68 gradu berrietatik, 21 Arkitektu-

raren eta Ingeniaritzaren arloko graduak ziren; 9, Zientzia Esperimentalen arlokoak; 6, Osasun Zientzien esparrukoak; 22, Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen esparrukoak; eta 10, Arte eta Humanitateen arlokoak.

Graduen eta horiek irakatsiko diren zentroen zerrenda osoa honako hau da:

ALDEKO TXOSTENA DUTEN GRADU-TITULUAK	IKASTETXEA
Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	Vitoria-Gasteizeko Enpresa Ikasketen U.E. Donostiako Enpresa Ikasketen U.E. Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea
Gizarte Antropologiako Gradua	Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea
Arkitekturako Gradua	Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa
Arteko Gradua	Arte Ederretako Fakultatea
Biologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Bioteknologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoko Gradua	Gizarte Zientziak eta Komunikazioko Fakultatea
Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua	Farmaziako Fakultatea
Ingurumen Zientzietako Gradua	Farmaziako Fakultatea
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Fakultatea
Ikus-entzunezko Komunikazioaren Gradua	Gizarte Zientziak eta Komunikazioko Fakultatea
Kultur Ondasunen Kontserbazioko eta Zaharberritzeko Gradua	Arte Ederretako Fakultatea
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	Arte Ederretako Fakultatea
Kriminologiako Gradua	Zuzenbideko Fakultatea
Zuzenbideko Gradua	Zuzenbideko Fakultatea
Ekonomiako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea
Haur Hezkuntzako Gradua	Vitoria-Gasteizeko Irakasleen U.E. Donostiako Irakasleen U.E. Bilboko Irakasleen U.E.
Lehen Hezkuntzako Gradua	Vitoria-Gasteizeko Irakasleen U.E. Donostiako Irakasleen U.E. Bilboko Irakasleen U.E.
Gizarte Hezkuntzako Gradua	Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea Bilboko Irakasleen U.E.
Erizaintzako Gradua	Donostiako Erizaintzako U.E. Leioako Erizaintzako U.E. Vitoria-Gasteizeko Erizaintzako U.E. (atxikitako ikastetxea)
Ingeles Ikasketetako Gradua	Letretako Fakultatea
Euskal Ikasketetako Gradua	Letretako Fakultatea
Farmaziako Gradua	Farmaziako Fakultatea
Filologiako Gradua	Letretako Fakultatea
Filosofiako Gradua	Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea
Finantza eta Aseguruetako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea
Fiskalitate eta Herri Administrazioako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea
Fisikako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Geografia eta Lurralde Antolaketako Gradua	Letretako Fakultatea
Geologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Negozio Kudeaketako Gradua	Bilboko Enpresa Ikasketen U.E.
Enpresa Kudeaketa eta Marketineko Gradua	Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberaren U.E. (atxikitako ikastetxea)
Historiako Gradua	Letretako Fakultatea
Arte Historiako Gradua	Letretako Fakultatea
Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Ingeniaritzako Goi Mailako U.E.
Ingeniaritza Zibileko Gradua	Donostiako U.E. Politeknikoa Meategi eta Herri Lanetako Ingeniaritza Teknikoaren U.E.
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritzako U.E. Donostiako U.E. Politeknikoa
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoaren U.E.
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea

(4. orrietan jarraitzen du)

Industria Ingeniaritza Elektronikoen eta Automatikoaren Gradua	Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritzako U.E. Donostiako U.E. Politeknikoa Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoaren U.E.
Meategi Teknologiaren eta Energiaren Ingeniaritzako Gradua	Meategi eta Herri Lanetako Ingeniaritza Teknikoaren U.E.
Ingeniaritza Informatikoko Gradua	Informatikako Fakultatea
Kudeaketa eta Informazio Sistemetako Ingeniaritza Informatikoaren Gradua	Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritzako U.E. Informatikako Fakultatea Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoaren U.E.
Itsas Ingeniaritzako Gradua	Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T.
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritzako U.E. Donostiako U.E. Politeknikoa Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoaren U.E.
Nautika eta Itsas Garraio Ingeniaritzako Gradua	Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T.
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Industria Ingeniaritza Kimikoko Gradua	Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritzako U.E. Donostiako U.E. Politeknikoa Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoaren U.E.
Telekomunikazioetako Ingeniaritza Teknikoaren Gradua	Bilboko Ingeniaritzako G.E.T.
Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	Donostiako U.E. Politeknikoa
Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua	Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola
Industria Antolaketaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Ingeniaritzako G.E.T.
Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Ingeniaritzako G.E.T.
Marketin Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea
Matematiketako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Medikuntzako Gradua	Medikuntza eta Odontologiako Fakultatea
Giza Nutrizio eta Dietetikako Gradua	Farmaziako Fakultatea
Odontologiako Gradua	Medikuntza eta Odontologiako Fakultatea
Pedagogiako Gradua	Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea
Kazetaritzako Gradua	Gizarte Zientziak eta Komunikazioko Fakultatea
Psikologiako Gradua	Psikologiako Fakultatea
Publizitate eta Erlazio Publikoko Gradua	Gizarte Zientziak eta Komunikazioko Fakultatea
Kimikako Gradua	Zientzia Kimikoetako Fakultatea Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Lan Harremanen eta Giza Baliabideen Gradua	Lan Harremanen U.E.
Soziologiako Gradua	Gizarte Zientziak eta Komunikazioko Fakultatea
Gizarte Laneko Gradua	Vitoria-Gasteizeko Gizarte Laneko U.E.
Itzulpenintza eta Interpretazioko Gradua	Letretako Fakultatea

KONTSEILUAREN PRESIDENTEA LEGEBILTZARRAREN AURREAN AGERTU DA, PLAN ESTRATEGIKOAREN GAUZATZE-MAILAREN KONTU EMATEKO

Pasa den ekainaren 30ean, EHUn Gizarte Kontseiluko Presidente Jose Miguel Martinez Urquijo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Batzordearen aurrean agertu zen, EAko Jesus Maria Larrazabal legebiltzarkideak hala eskatuta, Kontseiluak 2007-2010 Plan Estrategikoaren esparruan egindako lanaren kontu emateko eta hurrengo laurtekoko aurreikuspen estratergikoei buruzko informazioa emateko.

Martinez Urquijok unibertsitate-gobernuko organo kolegiatu bat agertzea nabarmendu zuen eta Batzordeari azaldu zion, Kontseiluko presidente izendatu zutenean, bere helburuetako bat, hain zuzen ere, ikuspegi estratergikoa zuen lan-plan bat sustatzea zela eta, kargua hartu eta sei hilabeteetara, 2007-2010 Plan Estrategikoa onartu zela. Horretan, Unibertsitatearen irudi publikoa indartzen laguntzeko, EHU gizartera hurbiltzeko eta Kontseiluaren unibertsitatearen eta gizartearen arteko bitartekari-rola bermatzeko helburu hirukoitza jasotzen zen. Helburu horiek lau ardatz estratergiko handiren inguruko ekimenak garatuz lortu behar ziren: unibertsitate-kudeaketan laguntzea; Unibertsitatean gizartearen ahotsa izatea eta beharrezko aldaketen katalizatzaile izatea; Unibertsitatearen eta gizartearen arteko komunikazioa hobetzea; eta Kontseilua EHUr a hurbiltzea.

Jarraian, Kontseiluko Presidenteak Batzordeari xehetasunez jakinarazi zion 15 proiekturen baino gehiagoren egoera, zeinak Planaren esparruan gauzatu baitira eta urteko plan operatiboan bitartez egin baitira, lau bloke handitan multzokatuta, helburuen arabera: EHU ikusgai uztea, euskal gizarteak unibertsitateko baliabideak erabil ditzan erraztuz; unibertsitateko ikasleengan enplegua eta tituludunen lan-orientazioa sustatzea; gizartearen beharrak identifikatzea lehiakortasunari, berrikuntzari, gaitasunei eta beharrezko ezagutzei dagokienez eta unibertsitateko produktu eta zerbitzuak bereiztea; eta unibertsitate-kudeaketan laguntzea.

Amaitzeko, Martinez Urquijok legebiltzarkideei 2011-2014 Plan Estrategikoaren ildo orokorrak aurkeztu zizkien, Kontseiluaren Osoko Bilkuran egun batzuk lehenago onartu zena eta Topaleku honetan bertan sakontasun handiagoz ezagutarazten duguna.

Presidenteak, bukatzeko, nabarmendu zuen karguan lau urtez egon ostean, egiaztatu duela Kontseilua funtzionatzen duen organo bat dela, unibertsitate-gobernua duen rola betetzen duela, kontzertu goraipagarriko giro batean lan egingen duela eta egunero saiatzen dela instituzio akademikora gizartearen ezinbesteko ikuspegia ekartzen.